

## Gela irekia

# Euskaraz irakurtzen ikasi, irakurriz euskara ikasteko

Eman didaten laguntza eskertu nahi diet Lourdes Elozegi Gaikuntzako tutoreari eta Karmele Agirregabiria Leintz Udal Euskaltegiko zuzendari eta lankideari.

*«Oker gabiltza, baldin eta uste badugu arlo guztietan eta eskola guztietan lantzen dela ulermenezko irakurketa»*

Victor Moreno

Esan liteke irakurmena ikasprozesuaren muina dela eta estu-estu loturik dagoela idazmenarekin. Edonola ere, hausnartzea komeni da ea nahikoa egiten dugun ikaslea irakurle trebea izan dadin. Irakurmenak soinuarekin ere badu lotura. Izan ere, isilean egiten dena irakurtzeko modu bat baino ez da, ahots altuan ere irakur daiteke eta ez da umekeria; are gehiago, irakurle trebeak entzun egiten du testua. Ondorioz, ikasgelan tartea egin beharko zaie irakurtzeko bi modu horiei: isilari eta ozenari.

Nahiz eta sumatu berezko “musika” duela hizkuntza bakoitzak, euskaraz ez da asko landu prosodia deritzon esparrua, eta didaktikan badago hutsune hori betetzeko beharra, ahoskera edota tonua bigarren mailakotzat jo ohi diren arren; prosodia desagokiak ulermena oztopa dezake. Ondorioz, prosodia-gaitasuna azpimarratu eta landu behar da, ikasprozesuaren hasiera-hasieratik, errotik aldatuta ikasgelako dinamika. Ikuspegi horretatik abiatuta, zenbait jarduera praktikoa proposatuko dira artikularen bukaeran.

### **Gako-hitzak**

Irakurmena, irakurketa isila, irakurketa ozena, jarduera praktikoa, prosodia, trebetasunak

## 1. SARRERA

Bigarren hizkuntza ikastea —alegia, jatorrizkoa ez den beste edozein— ez da di-da bategan erdiesten den kontua. Euskaltegiko irakasleok ondtxo dakigu hori, eta ikaslea ezinean ikusteak hausnarrarazi egiten digu, nahi baino gehiagotan. “Zertan eta nola lagun diezaiokegu ikasleari, euskararen ikasprozesuan egoki egin dezan aurrera?”. Horixe da geure buruari egunero galdetzen dioguna; horixe da euskara-irakaslearen buruhaustea.

Buruhaustea buruhauste, didaktikak bilakaera esanguratsua izan du azken urteotan, eta gaur egungo euskara-eskolek ez dute garai batekoen antzik. Duela urte batzuk ez

bezala, komunikazioa da xede egungo didaktikan, ahozkoa zein idatzizkoa. Ikasleak komunikazio-ekintza gauzatu behar du —erosketak egin, medikuarenerako txanda eskatu, kexa-eskutitza idatzi...—, eta testuen bitartez beteko du unean uneko helburua. Ikasprozesuan, ikaslea bera da ardatz, eta bidelagun izango du irakaslea. Hortaz, ikaslea trebatzea da gaur egungo euskara-irakasleonegitekoa —behar dituen baliabideak eskaintzea—, ahoz zein idatziz euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan dezan.

Trebatzeak lau trebetasunak lantzea dakar: alde batetik, ulertu egin behar du ikasleak —entzumena eta irakurmena jasotzen ditu ulermenak bere baitan—; bestetik, ekoitzi —idatziz nahiz ahoz gauzatu ekintza komunikatiboa—. Ezkutukoa edo barrukoa da bata; agerikoa, bestea. Hots, testu idatzia ikusi egiten da, eta ahozko diskurtsoa entzun. Ulermenak, aldiz —ikasleari inolako ekoizpen-lanik eskatu ezean (laburpena dela, ulermen-testa dela...), behinik behin—, ez du islarik, eta norberaren baitan geratzen da. Horregatik —askotan oharkabea—, ahaztu egiten zaigu hor dagoela, eta ulermenean ere baliabideak eman behar dizkiogula ikasleari, irakurle zein entzule trebea izan dadin.

Oraingo honetan, ulermena izango dugu hizpide —ekoizpena baztertu gabe—, izenburuak iradokitzen duen bezala, irakurmenaren ulermena, hain zuzen. Trebetasun honek berebiziko garrantzia du ikasprozesuan —hori ez da kontu berria—, oinarritzko gaitasuna baita. Ikaslea irakurle eskasa baldin bada, nekez izango du arrakasta ikasprozesuan. Baina irakasleok ondo baino hobeto dakigun hori helarazten ote diegu ikasleei? Eguneroko euskara-eskoletan eskaintzen ote diogu merezi duen tarte trebetasun honi? Ez ote dugu, uste baino sarriagotan, irakurmena zubitatzat baliatzen, beste trebetasunen bat —mintzamina edo idazmina, kasu— xede izanda? Egiten ote dugu nahikoa gure euskaltegiako ikasleak euskara-irakurle trebeak izan daitezen?

Galdera horiei guztiei erantzuten eta, bide batez, irakurmena hurbilgotik ezagutzen saiatuko gara. Lan honen helburua euskara-irakasleoi trebetasun honen garrantziaz hausnarraraztea baino ez da. Ez dugu ikaslea euskalduntzeko errezetarik emango. Hobe, hala balitz! Baina ikasgelan irakurmena berariaz eta sistematikoki lantzeko beharraz jardungo dugu; izan ere, zinez uste dugu ikasprozesuaren arrakastaren gakoa, hein handi batean, irakurmenaren lanketa egokian eta jarraituan dagoela. Ekin diezaiogun, bada, bidea urratzeari.

## 2. IRAKURMENA ETA SOINUA: ENTZUN EGIN BEHAR DA ONDO IRAKURTZEKO

Askok uste dute irakurmena trebetasun isila dela. Itxura batean, hala dirudi: ez du hotsik; ez du soinuik. Irakurri, nork bere kabuz egin ohi du, isilean. Baina ez da beti horrela izan: “Irakurketa isilak X. mende-hasieran hartu zuen indarra; ordura arte, irakurtzea ozen irakurtzea zen. Irakurtzeak begiak eta belarriak behar zituela uste zen, irakurketa isila ulertezintzat hartzeraino” (Arrula, 2014).

Garai batean, hain zen harrigarria isilean irakurtzea, ezen San Agustín ere (IV. mendea) zur eta lur geratu baitzen San Ambrosio isilik irakurtzen ikusi zuenean. Eta hara zein modu bitxian deskribatu zuen gaur egun erabat arrunta zaiguna; Rodríguez Riverok jaso duenez (2013), begirada orrialdeen gainetik pasatuz, arima zentzumenean murgilduz, hitzik esan gabe eta mingainari eragin gabe irakurtzen zuen.

Soinuak edo hotsak badu, beraz, harremana irakurmenarekin. “Jakina, a zer deskubrimendua!”, pentsatuko duzue askok, “Grafia ahoskatuz ikasten dugu irakurtzen. Nola bestela?”. Halaxe da, bai. Baina ez da kasualitatea umea, San Agustini gertatu zitzaion bezalaxe, aho zabalik geratzea, heldua —gurasoak, esaterako— isilean irakurtzen ikustean: hasieran, haurrari miraria iruditzen zaio ahotsik erabili gabe irakurri ahal izatea. Haurraren burutxoak ez daki, oraindik, ahotsa nork bere baitan eta isilean ere entzun dezakeela. Aurrerago jabetuko da horretaz. Bitartean, ozenki irakurriko du, horixe baita,

bere ustez, aukera bakarra. Ahotsa entzuteak konfiantza emango dio haurrari, eta gero eta erosoago irakurriko du; gero eta irakurle hobe izango da. Baina laster ikasiko du helduek bezala irakurtzen, isilean, eta, tamalez, utzi egingo dio bestela irakurtzeari (gehientsuenek Lehen Hezkuntzan uzten omen diote ahots altuan irakurtzeari).

Arestian esan bezala, helduak ondotxo daki ezpainik mugitu gabe eta hotsik egin gabe irakur daitekeela. Eta halaxe egin ohi du. Umekeria deritzo ahots ozenez irakurtzeari; ez du atsegin. Barregarri ikusten du bere burua, gainera, antzezten balebil bezalaxe. Bakan, oso bakan, irakurriko du ozen; umeari ipuina irakurtzen dionean, kasu. “Entzuteko literatura ume txikiekin lotzen da askotan. Igual, horregatik kostatzen zaigu heldu askori horretara jartzea, buruan gauza inportanteagoak ditugulakoan [...] haurren kontuekin lotzen dugulako, eta beti egonen delako hori beheragoko mailaren batean” (Arrula, 2014).

Ozenki irakurtzea ez da umekeria, heldu askok hala uste izan arren. Ez da denbora alferrik galtzea. Ezinbestekoa da ikasprozesuaren hastapenean. Eta ondoren ere guztiz mesedegarria, trebatzen jarraitzeko. Aktoreek halaxe ikasten dute interpretatzen; ez dago isilean trebatu denik. Hala ere, argi dago irakasleok ez garela aktoreak eta euskaltegi-tako ikasleak ere ez ditugula aktore izateko trebatu behar. Hala ere, interpretazioak badu loturarik irakurmenarekin: interpretatu egin behar dugu testua.

Baina zergatik edo zertarako irakurri ozenki? Alcántarak (2009) argi eta garbi adierazten digu ahots altuan irakurtzea oso lagungarria dela testuaren intonazioa berreraikitzeke, testuari ahots-inflexio egokia emateko eta hitzak talde fonikoetan multzokatzeko. Irakurleak, aurrena, bere barneko ahotsa —edo bitartekari fonikoa— eratu eta sendotu behar du, eta hori ahots altuan irakurritu baino ezin du lortu. Ezinbesteko baldintza da bitartekari foniko eraginkorra izatea irakurle trebea izateko, horixe izango baita —isilean irakurtzen duenean ere— testua ulertzen edo interpretatzen lagunduko diona. Horrenbestez, esan dezakegu ahots altuan irakurtzeak erraztu egiten diola bidea irakurleari: autoreak testuaren bitartez helarazi nahi dion mezua errazago jasoko du. Alegia, ahotsa ozenki entzunez, irakurleak autorearen ahotsa irudika dezake: bide ematen dio horretarako.

Etengabe dihardugu soinuaz, hotsaz eta ahotsaz; izan ere, testu idatzia —lehen begiratuan hala dirudien arren— ez da begiratzeko edota ikusteko sortua izan, entzuteko baizik —Alcántarak (2009) behin eta berriro diosku hori—: testua irakurtzea ez da paperean dagoena ikustea, baizik eta autoreak dioena entzutea eta ulertzea. Baina ikasleak, tamalez, ez du autorea bere ondoan eserita edukiko. Ikasi egin beharko du paperean ikusten duena interpretatzen. Hala egin ezean, ez da komunikaziorik egongo autorearen eta irakurlearen artean.

Beraz, irakurtzean —begiez gain, jakina—, belarriek egin behar dute lan: irakurle trebeak entzun egiten du testua, eta horrexegatik ematen dio intonazio egokia; talde fonikoak hauteman eta esanahi-unitateak identifikatzen dituelako, hain zuzen. Musikari onak ere halaxe egin ohi du: papereko pentagramari begira, musika entzuten du. Irakurleak irudikatu egin behar du autorea paperean ageri den testua kontatzen. Hori da testua ulertzeko (barneratzeko) modu bakarra.

Asko dira irakurketaren inguruko ikerketak. Japonian, esaterako, ahots altuan irakurtzeak garunean zer-nolako erreakzioa egiten duen ikertu dute. Battrok (2011) eman digu ikerketa honen emaitzen berri, eta ezagun da handiak direla onurak: ahots altuan irakurtzeak ezberdintasun esanguratsuak islatzen ditu garun-azalean, eta gehiago aktibatzen ditu bi hemisferioak.

Irakurketa ozena mesedegarria izateak ez du esan nahi irakurketa isila baztertu behar dugunik. Isilean irakurtzeak ere baditu alde onak, jakina: bakarrik ez gaudenean —leku

publikoetan (liburutegian, ikasgelan, itxarongelan, ospitalean...), alegia—, zoramena litzateke ahots altuan irakurtzea. Euskaltegian bertan, esaterako, nor berea irakurri beharko du askotan, isilean. Baina kontuan izan behar dugu, eta ezin dugu inola ere ahaztu, ikaslea euskaraz ondo irakurtzen trebatuko bada, tartea egin behar diogula ikasgelan ahots altuan irakurtzeari.

### 3. PROSODIA: HIZKUNTZAREN MUSIKA

Iritsi gara irakurmenaren erraietara, eta barru-barrutik ezagutu dugu: testuak, nahiz eta paperean egon, doinua duela ikusi dugu. Doinu horri prosodia deritzo. Prosodia hizkuntzaren musika dela esan dezakegu. Hizkuntza guztiek dute musika: ez dago prosodiarik gabeko hizkuntzarik. Aintzat hartu beharko dugu, beraz, testua ulertuko badugu. Halaxe dio Oñederrak (2004, 128-129 or.): “Definizio asko dagoen arren, prosodia arduratzen da gertakari foniko suprasegmentalez, azentuaz, intonazioaz eta erritmoaz, besteak beste. Gertakari horiek funtzio berezia daukate enuntziatuak eta diskurtsoa interpretatzen”.

Jakin denok dakigu hizkuntza bakoitzak duela bere musika; sumatu egiten dugu, hango eta hemengo hitzunik entzuten ditugunean: nor ez du entzun, behin edo behin, alemana hizkuntza zakarra dela eta frantsesa, berriz, goxo- goxo? Nor ez du, noiz edo noiz, ingurukoak zein hizkuntzatan ari diren asmatu, doinua dela medio?

Baina jakitea ez da nahikoa. Euskara ikastea, inork gutxik ematen dio prosodiari duen garrantzia, eta, ondorioz, ikasgelan ez da gainerako gaitasunak bezala lantzen. Arrazoiak bi dira, nagusiki: alde batetik, euskara- irakasleok ez dugu formaziorik jaso esparru honetan ikaslea bideratzeko, eta, gaia bera hain labainkorra izaki, ez gara ur handitan sartzera ausartzen; bestetik, adituek ikerketak egin dituzten arren, material eta baliabide gutxi dago oraindik didaktikan baliatzeko.

Halaxe da: prosodia ez da beste esparruak adina landu, eta euskararen didaktikan badago beharra gai honi, behingoz, heltzeko. Iñaki Gaminde, Gotzon Aurrekoetxea, Aintzane Etxebarria, Urtza Garay eta Asier Romero —hizkuntzalariak eta filologoak batzuk, eta didaktikan adituak besteak— ederki ohartu dira euskararen didaktikan dagoen hutsuneaz. Hori dela eta, prosodia didaktikara hurbiltzeko asmoz, Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak izeneko lana argitaratu dute 2014an. Liburuak bi alderdi lantzen ditu: teorikoa bata, praktikoa bestea. Teorikoan, azentuari, intonazioari eta erritmoari dagozkien euskara estandarren joera nagusiak jaso dituzte; praktikoan, berriz, jolasen bidezko lanketak proposatu dituzte ikasgelan prosodian ere trebatzeko bidea izan dezagun. Nahiz eta, gehienbat, ahozko erabilerara begira dagoen, testu irakurrien prosodia ere jasotzen du. Liburu interesgarria da oso, eta, egileek dioten bezala, ezin gara arauen zain egon prosodia lantzen hasteko, ez baitakigu arautuko denik ere.

Nolanahi ere, hau ez da prosodiari buruzko lehen lana. Aitzitik, aurrez egindako ikerketetan oinarritu du aditu-talde honek oraindik orain argitaratutako lana. Euskararen prosodian, azentua izan da gehien ikertu dena; Txillardegik egin zituen, lehendabizikoz, euskararen azentuari buruzko proposamenak. Harrezkero, hainbat izan dira prosodia —azentua, intonazioa eta erritmoa— ikertu dutenak (Hualde, Gaminde, Elordieta, Aurrekoetxea, Oñederra...).

Baina hau guztia nola aplikatu euskararen didaktikan? Prosodia-gaitasuna ez da gaitasun linguistikoa bezain gardena. Hori dela eta, euskaltegiko ikasleak ez du uste prosodia desegokiak ulermena oztopa diezaiokeenik: zer edo zer ulertzen ez duenean —testu idatzian zein ahozkoan—, gaitasun linguistiko eskasari egotzi ohi dio errua. Ez da konturatzen prosodia-gaitasunak ulermena ahalbidetzen duela, eta gaitasun ezak, jakina, eragotzi. Arau eta gomendio linguistikoak erraz onartzen ditu ikasleak; ahoskerari edota to-

nuari dagozkien iruzkinak, aldiz, txikikeriatzat jotzen ditu. Bestalde, irakasleak ahots altuan irakurtzea proposatuz gero, lotsatu edota beldurtu egiten da. Helduok, oro har, ez dugu gustuko besteen aurrean nola irakurtzen dugun erakustea, eta saihestu egiten ditugu era honetako lanketak.

Zailtasunak zailtasun, esparru hau garatzea ezinbestekoa da euskara nahiz beste edozein hizkuntza ikastea; izan ere, gaitasun komunikatiboa zenbait azpigaitasunen interakzioetik dator, eta prosodia-gaitasuna da bat. Azentua, intonazioa eta erritmoa egoki erabiltzeak bideratu egiten du komunikazioa, erraztu. Prosodia-gaitasuna gaitasun linguistikoaren gainera dagoela esango genuke: irakurle trebea —prosodia-gaitasuna ondo garatua duena— testua behar bezala interpretatzeko gai izango da, nahiz eta hitz eta egitura guztien esanahia jakin ez.

Eta nola erdietsi prosodia-gaitasuna? Haurrak amaren sabelean dagoela jasotzen du hizkuntzaren erritmoa, eta bost hilabeterekin ama-hizkuntza besteetatik bereizteko gai izango da. Ama-hizkuntzan berezkoa da jabetze- prozesua (Peña Garay, 2005). Bigarren hizkuntzan, aldiz —askok hala uste izan ez arren—, ikasi egin behar da. Propio landu ezean, ikasleak ez du prosodia-gaitasuna eskuratuko. Euskaltegiaren ardura da, beraz, ikaslea euskararen prosodian trebatzea.

#### 4. PROSODIA-GAITASUNA GARATZEKO BEHARRA

Hasiera bateko gure kezkek eta usteek badute, nonbait, funtsa: prosodia-gaitasuna garatu ezean, nekez trebatuko dugu ikaslea irakurmenean. Kontua ez da irakurtzea, nola irakurtzen den baizik: egoki irakurtzeak ahalbidetuko du ulermena.

Arian-arian, ikusi dugu ikasleak komunikazio-gaitasuna erdiesteko eta ikasprozesuan aurrera egiteko ezinbesteko baliabidea duela prosodia. Didaktikan esparru berria izan arren, bidea urratu beharrean gaude. Nola egin ez da erraza, jakina. Alde batetik, eskura dugun materiala baliatu beharko dugu geure burua janzteko —esaterako, euskara estandarren joera nagusiak jaso dituzte Gamindek, Aurrekoetxeak, Etxebarriak, Garayk eta Romerok (2014)—; bestetik, irakurmena lantzen dugunean, urrats berriak ematen ausartu beharko dugu: ahots altuan irakurtzen ohitu; azentuari, intonazioari eta erritmoari buruzko iruzkinak egin... Prozesu luzea eta zaila izango da, baina ikasleak esker-tuko du, seguru.

Hezkuntzan ere, horretaz jabetuta, *Bikoteka irakurtzen* egitasmoa (Duran, 2011) jarri dute abian Euskal Herriko zenbait ikastetxetan —Katalunian sortu zuten proiektua, eta, emaitza onak direla medio, zabaldu egin dute—: tutore baten laguntzaz, ahots altuan irakurriz eta prosodiari (intonazioari eta erritmoari) erreparatuz lantzen dute irakurmena Lehen Hezkuntzako haurrek. Intonazioa da ulermenerako giltza, eta horixe da egitasmo honen bitartez landu nahi dutena.

Argi dago, oro har, helduak direla euskaltegiko ikasleak eta haurrek ez dutela modu berean ikasten. Hala ere, euskara-ikasleak jakitun izan behar du hizkuntza guztiak direla ezberdinak, bakoitzak bere musika duela eta trebatu egin behar duela euskaraz irakurtzen. Nahiz eta jatorrizko hizkuntzan irakurtzen jakin, bigarren hizkuntza ikastea, euskaraz komunikatuko bada, euskararen prosodia barneratu behar du.

Anitza da euskaltegiko ikaslearen profila: hasierako mailetan (A1, A2 eta B1) asko atzeritarrak dira, eta beste askok —bertakoak izan arren— euskara-ezagutza txikia dute (ingurune erdaldunean bizi dira, ikasketak gaztelaniaz egin dituzte...); goragoko mailatan (B2, C1), aldiz, batzuek euskara dute ama-hizkuntza edota euskaraz egin dituzte ikasketak, eta beste batzuek euskaltegian hasi zuten euskararen ikasprozesua. Hori bai: guztiek dakite irakurtzen —jatorrizko hizkuntzan bai, behinik behin—. Dena dela, as-

kori kosta egiten zaie euskaraz irakurtzea —arrazoiak asko izan daitezke: ikasketak gaztelaniaz egin izana, euskaraz irakurtzeko ohitura eza...— Eta azpimarratu beharra daukagu atzerritik etorri berri direnei euskararen azentua eta intonazioa erabat arrotza egiten zaiela.

Nahiz eta orain arte ikasgelan berariaz landu ez dugun —baliabide eta formazio ezagatik—, uste dugu oso garrantzitsua dela ikasprozesuaren hastapenetik prosodiari heltzea, eta ikasleei behin eta berriro adieraztea zein baliabide garrantzitsua den egoki erabiltzea euskararen azentua, intonazioa eta erritmoa. Ohitu egin behar dugu guztiok —ikasle zein irakasle— ahots altuan irakurtzen eta prosodiari erreparatzen. Irakasleok izan behar dugu ikasleen gidari, eta, prosodian adituak ez bagara ere (urteetako eskarmentua dugu euskalduntzean, eta, jakina, euskaldun osoak gara), senez jokatu behar dugu, eta ez dugu beldurrik izan behar ikasleari euskararen prosodiaz jabetzen laguntzeko. Hala egin ezean, oharkabean bada ere, aurrera egiteko ezinbestekoa duen baliabidea ukatuko diogu.

## 5. IRAKURMENA: IDAZMENAREN ESKOLARIK ONENA

Irakurle traketsa nekez izango da idazle trebea. Ondo idazteko, ez da nahikoa idazmenean trebatzea. Ikasleak irakurle trebea behar du izan. Hor dago gakoa: irakurmena da ikasprozesuaren muina.

Euskaltegiko ikasleek, salbuespenak salbuespen, euskaraz gutxi irakurtzen dute, ordea. Eta askotan, gainera, ez dakite egoki irakurtzen: ez ditugu behar bezala trebatu. Kontua da une jakinetan baino ez dugula ahots altuan irakurtzen, ikasleak zerbait ulertzen ez duenean, esaterako. Eta ezagun izaten da prosodia desegokiak oztopatzen diela ulermena. Aurreko atalean ere ikasgelan ahots altuan irakurri eta prosodia-gaitasuna garatzeko beharraz jardun dugu; izan ere, prosodiak ahalbidetzen du ulermena.

Ulermenak hiru ekintza jasotzen ditu bere baitan: aurrena, pertzepzioa —ikasleak irakurri egin behar du, jaso—; hurrena, analisisa —aztertu egin behar du irakurritakoa—; eta, azkena, erabilera —idaztean erakutsiko du ikasleak ulermena ondo gauzatu duen—. Bistan da ulermena eta ekoizpena elkarri estuki lotuta daudela: ikasleak ondo idazten badu, erabat ulertu duelako seinalea da. Alferrik jardungo dugu ikaslea idazmenean trebatzen, irakurmenean behar bezala trebatu ezean.

Egia da idazmenaren lanketak bilakaera handia izan duela azken urteotan. Sistematikoki lantzen dugu ikasgelan: adituek makina bat gai aztertu dute (puntuazioa, hitzen ordena, testuaren argitasuna, testu-antolatzaileak...), eta, horri esker, irakasleok nahikoa baliabide dugu ikaslea idazten trebatzeko. Dena dela, ikasleak idazmenean trebatzen buru-belarri jardun arren, ikasleari, oro har, ez zaio diskurtoa modu naturalean ateratzen: oinarri-oinarrizko trebetasunak, irakurmenak, egiten du huts. Betiko zurrunbiloan biraka dihardugu: nola ikasiko du, bada, ikasleak euskaraz idazten, irakurmenean behar bezala trebatzen ez bada?

Irakurmenari heldu behar diogu, eta ulermenaren hiru ekintzak hartu behar ditugu aintzat; hirurak. Isilean irakurtzea beharrezkoa da, jakina —ikasleak jaso egin behar du informazioa—. Baina ahots altuan ere irakurri behar dugu, ahotsa entzuteak (intonazioak eta erritmoak) lagunduko baitio ikasleari irakurritakoa aztertzen, gero erabilerarako jauzia era naturalean eta logikoan egin dezan. Prosodia-gaitasuna garatzen duen ikasleak, modu natural eta logikoan erabiliko ditu baliabide linguistikoak: azentua egoki jartzeak erakutsiko dio bi hitzek sintagma bakarra osa dezaketela; intonazioak lagunduko dio puntuazio-marka bat edo beste jartzen edota galdegaia zein den antzematen... Uste baino baliabide gehiago emango dizkio prosodiak.



Bidea, prosodiatik abiatuta, erabilera logikora iristea da. Ahots altuan irakurriz, eta gaitasun prosodikoa garatuz, ideiak ondo ulertuko ditu —euskara eratu eta sendotuko du bere baitan—, eta, ondorioz, euskaraz sortzeko gai izango da. Horixe da ikasprozesuan aurrera egiteko modu bakarra: ekoizpenaren oinarria edo abiapuntua euskara bera izatea; Alcántarak (2009, 9. or.) dioenez, puntuazio-markak modu logikoan erabiltzea irakurle trebeak baino erdietsiko ez duen lorpena da.

Jakina, hau ez da goizetik gauera gertatuko; prozesu luzea izango da. Irakurmena etengabe landu behar da, ikaslearen beharrak ere hazi egingo baitira. Sekula ez zaio irakurmena lantzeari utzi behar. Baina merezi du. Hala egin ezean, ikasleak sortzen edo ekoizten duen hori, seguru asko, ez da euskara izango; ez du euskararen musika izango.

Hasierako mailetan (A1, A2) oso normala da ikasleak edozertarako ama-hizkuntzara jotzea helduleku bila eta etengabe euskara jatorrizko hizkuntzarekin alderatzea. Baina ikasprozesuan aurrera egin ahala euskaldunduko bada, ikasleak oinarri sendoa eratu behar du ezinbestean. Eta oinarri horren zutabe garrantzitsu bat da irakurmena; garrantzitsuena, seguru asko.

Bestalde, nahi badugu ikasleak bere kabuz euskaraz irakur dezan, irakurtzen trebatzea da biderik eraginkorrena. Ikasgelan trebatuz gero, erraztasuna lortuko du. Zenbat eta hobeto irakurri, gusturago egingo du, eta, ondorioz, zaletu egingo da. Alcántararen iritziz, (2009, 9. or.), ekuazioa oso sinplea da: testua entzuteak ulermena ahalbidetzen du; testuak ulertzen ohitzeak, irakurtzen jarraitzea; irakurtzen ohitzeak, idaztea.

## 6. ERRONKA: ERROTIK ALDATZEA EUSKARA-IKASTAROETAKO DINAMIKA

Ez da erraza euskara-ikastaroetan irakurmena ahots altuan garatzea; izan ere, orain arte isilean irakurri izan dugu beti —salbuespenak albuespen—. Dena dela, prosodiak ikaslearen gaitasun komunikatiboan duen eragina ikusita, lehenbailehen ekin behar diogu bidea urratzeari: prosodia-gaitasuna ezinbestekoa du ikasleak euskaldun izateko.

Errotik aldatu behar dugu, beraz, euskara-ikastaroetako dinamika: prosodiari eman behar diogu lehentasuna. Sinetsi egin behar dugu prosodia-gaitasunak euskaldun izateko bidea zabalduko diola ikasleari, ezinbesteko makulua duela euskalduntze-prozesuan. Eta, jakina, ikasgelan beren-beregi landu ezean, nekez jabetuko da ikaslea horretaz.

Aldaketa esanguratsua da, inondik inora, eta badira irakasleok gainditu beharreko langak: beldurra eta ziurtasun eza, esaterako. Ez gara prosodian adituak; ez dugu formaziorik jaso. Euskaldun osoak gara, ordea, euskararen musika geure baitan dugu, eta gai gara ikaslea arlo horretan ere trebatzeko. Izango dugu, aurrerantzean, geure burua janzteko beta (idazmenarekin ere halaxe gertatu da), baina ezin gara besoak gurutzatuta egon, formazioa noiz iritsiko zain.

Irakasleok ez ezik, ikasleak ere ohitu beharko du dinamika berrira. Ez da erraza izango ahots altuan irakurtzea —lotsa gainditu behar izango du—, baina are zailagoa izango da prosodia-gaitasunaren garrantziaz jabetzea. Hasieran, seguru asko, umekeria irudituko zaio, irakaslearen gutizia. Trebatu ahala, ordea, euskara hurbilago sentituko du, ez zaio hain arrotz egingo —doinua ezaguna egingo zaionez, ulermen hobea izango du—. Eta, arian-arian, oinarri sendoa eratuko du: euskaraz komunikatu ahal izateko ezinbestekoa. Horixe da, hain zuzen, prosodia-gaitasuna eskuratzea: euskaraz eta euskaratik —etengabe ama-hizkuntzara jo behar izan gabe— ekoizteko bermea.

Baina nola gara dezakegu irakurmena ahots altuan? Zer-nolako lanketak egin ditzakegu, ikasleak prosodia-gaitasuna eskura dezan?

## 7. EUSKARA-IKASTAROETAN IRAKURMENA AHOTS ALTUAN GARATZEN

Trebakuntzak serioa behar du izan: sistematikoa eta, ikasprozesuaren hastapenetik amaierara arte, etenik gabea. Baina zertan datza, finean, dinamika-aldaketa? Kontua ez da zer landu; irakurmena betidanik landu izan dugu euskara-ikastaroetan. Nola landu da kontua. Hortaz, ikuspegi-aldaketan dago gakoa: prosodia bera izan behar dugu langai.

Orain arte, irakurritakoaren ulermenari erreparatu izan diogu soilik, eta galderak egin izan dizkiogu ikasleari, ondo ulertu duen ziurtatzeko. Nola irakurtzen duen, ordea, ez dugu sekula aintzat hartu: ondo ahoskatzen duen, emozioak islatzen dituen, etenak behar diren lekuan egiten dituen, intonazio egokia darabilen... Jakina, horretaz jabetzeko ahots altuan irakurri behar da. Ez dugu ikaslearen prosodia-gaitasuna aztertu, ezta hobetzeko bitartekorik jarri ere. Ez ikusiarena egin diogu arlo honi, eta ez gara jabetu ikasleak euskara gertu sentitu behar duela, euskaldun izango bada.

Hortaz, hasi beharra dugu —sistematikoki eta etengabe— testuak ahots altuan irakurtzen, eta prosodiari, beren-beregi, merezi duen tartea eskaintzen. Maila guztietan egin beharreko lana da, eta ez dago, nahitaez, material berezia erabili beharrik: daukagun materialarekin molda gaitzke. Hori bai, lanketak ezin dira bat-batekoak izan; aurrez prestatuak behar dute izan. Irakasleok, kasu bakoitzean, argi izan behar dugu prosodiaren zein atal izango dugun langai (azentua, etenak, intonazioa...), eta zer-nolako gomendioak edo jarraibideak emango dizkiogun ikasleari. Arestian esan bezala, zer baliatu baino, nola baliatu da kontua.

Oro har, haurrei zuzendutakoa da prosodiaren lanketari begira argitaratutako materiala —Iñaki Gaminderen eta bere lantaldearen *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak*, *Lapicero mágico* bloga...—, eta, gure ustez, ez da egokia helduekin erabiltzeko. Alabaina, ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak argitalpeneko teoria (prosodiaren inguruko jarraibideak euskara estandarrean: azentua, galderen eta esaldi enuntziatiboen intonazioa, etenak...) oso lagungarria izan daiteke irakasleontzat; senaz gain, behar-beharrezkoa baitugu euskara estandarren joera nagusiak zein diren ezagutzea.

Lan honen helburua ez da ikaslea prosodian trebatzeko jarduera praktikoak eskaintzea; izan ere, urratzen hasi berri garen bidea izanik, apenas dugu esperientziarik —eta, jakina, ezin dugu emaitzez hitz egin—. Hala ere, zenbait jarduera praktiko proposatuko ditugu amaieran, lagungarri izan daitezkeelakoan. Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak argitalpeneko ikurrak baliatu ditugu azentua (´), etena (/), goranzko intonazioa (%H) eta beheranzkoa (%L) islatzeko. Baina, liburuan ez bezala, puntuazio-markak daudenetan utzi ditugu, ikasleak ikus dezan prosodia ez dela puntuazioaren araberakoa soilik.

Prosodiaren lanketa, gainerako arloak bezalaxe, ikasleen beharretara egokitu beharko dugu. Maila baxuetan (A1 eta A2), ahoskerari (grafiak nola ahoskatu), azentuari (euskara estandarren joera nagusiak) eta intonazioari (emozioak adierazteko bidea, goranzko eta beherazko intonazioa...) emango diegu lehentasuna; altuetan (C1 eta C2), ordea, etenei (puntuazioa eta eten prosodikoak) eta testuetako intonazio-aldaketei (tarte-kiak, galdegaia, goranzko eta beherazko intonazioa...). Testuei dagokienez, maila baxuetan eguneroko jardueran erabiltzen ditugun ikasmaterialetako testuak (*Aisa*, *Arian*, *Primeran*, *Aditu*, *Ikasbil*...) balia ditzakegu lanketak sortzeko, ezagutza mugatua da eta. Maila altuetan, berriz, testu errealak erabiltzea proposatzen dugu —dibulgazio- zein literatura-testuak—.

Horrenbestez, ikasgelan egin diezaiozun merezi duen tartea irakurmenari, ikasleen komunikazio-gaitasunean sumatuko dugu-eta aldea.



## 8. ZENBAIT JARDUERA PRAKTIKO

### 8.1. AISA TALDEA EDO A1 MAILA

Helburua: testua dagokion jardueran landu ondoren, ahots altuan irakurtzea, azentua eta etenak egoki baliatuz.

Prozedura:

1. Azentua behar den lekuan jartzen eta etenak ere behar diren lekuan egiten ikasiko dugu. Testua, dagoeneko, ezagutzen duzue; beraz, entzun arretaz irakasleak nola irakurtzen duen. Azentua eta etenak errazago atzemateko, testuan markatuta dituzue. Hona hemen azalpen txiki bat:
  - **Azentua** (´) **2. silaban** jarriko dugu euskaraz. Hitzak **bi silaba** bakarrik dituenean, ordea, **1. silaban**.
  - Puntua daukagunean, tonua jaitsi eta gelditu egingo gara (%L /)
  - Aurretik aurkeztu dugun hiriburua berriro aipatzen dugunean, tonua igo eta eten bat egingo dugu (%H /), nahiz eta puntuazio- markarik ez egon.

a) <b>Káixo</b> %L /. <b>Igó</b> r naiz %L /. <b>Gastéiz</b> koa naiz %L /. <b>Gastéiz</b> %H / <b>Ará</b> ban dago %L /.
b) <b>Áupa</b> %L /. <b>Auró</b> ra naiz %L /. <b>Irúñe</b> koa naiz %L /. <b>Irúñe</b> a %H / <b>Nafá</b> rroan dago %L /.
c) <b>Káixo</b> %L /. <b>Bixé</b> nte naiz %L /. <b>Baióna</b> koa naiz %L /. <b>Baióna</b> %H / <b>Lapú</b> rdin dago %L /.
d) <b>Áupa</b> %L /. <b>Mí</b> ren naiz %L /. <b>Donó</b> stiakoa naiz %L /. <b>Donó</b> stia %H / <b>Gipúz</b> koan dago %L /.
e) <b>Káixo</b> %L /. <b>Jú</b> len naiz %L /. <b>Bilbó</b> koa naiz %L /. <b>Bílbo</b> %H / <b>Bizká</b> ian dago %L /.

2. Orain, irakaslearen gomendioei jarraituta, goiko aurkezpen bana ahots altuan irakurriko duzue.

## 8.2. A2 MAILA

Helburua: testua dagokion jardueran landu ondoren, ahots altuan irakurtzea, etenak egoki baliatuz.

Prozedura:

1. Irakasleak etenak behar diren lekuan egiteko gomendio batzuk emango dizkizue (gomendio horien arabera markatuta ikusiko duzue testua). Gaurkoan, **noiz ezingo dugun etenik egin** ikusiko dugu:
  - a. Aditza (*jaikitzen nintzen, gustatzen zitzaidan, joaten ginen...*)
  - b. Ez + aditz laguntzailea (*eztut, etzitzaidan...* irakurtzen dira)
  - c. Amaierako "eta" aditzari itsatsita irakurtzen da (sarri, "-ta" irakurtzen da: *gustatzen zitzaidan-ta*)
  - d. Sintagma bereko elementuak (galdera bakarrari erantzuten diote; beraz, jarraian irakurri behar dira: *igandeetako gosaria, baserriko esnearekin, Txoko tabernara, osaba Felipek...*)

Ni herritik Argentinara umetan etorri nintzen. Ez dut gauza asko gogoratzen, baina igandero zer egiten genuen ondo gogoratzen dut.

Goizean, berandu jaikitzen nintzen, lo egitea ikaragarri gustatzen zitzaidan eta. Igandeetako gosaria, gehienetan, berezia izaten zen gure etxean. Anaiari arroz-esnea eta flana gustatzen zitzaizkion, eta amak baserriko esnearekin goxo-goxoak egiten zituen. Eguerdian, aitonarekin mezarara joaten ginen anaia eta biok. Lehen, beti, igandeetako arropa janzen zen elizara joateko. Niri ez zitzaidan batere gustatzen arropa hura, eta kasketa hartzen nuen. Mezatan lotsa pasatzen nuen, aitonari ozenki kantatzea gustatzen zitzaion eta. Elizatik atera ondoren, Txoko tabernara joaten ginen. Aitonari salda hartzea gustatzen zitzaion, eta guri kroketak. Etxera pozik itzultzen ginen. Osaba Felipek gurekin bazkaltzen zuen, eta arratsaldean gurasoei osabarekin kartetan jokatzea gustatzen zitzaion. Gu kalera joaten ginen jolastera. Anaiari pilotan jokatzea gustatzen zitzaion, eta niri kilkerak harrapatzea. A zer oroitzapenak haiek!

(Arian 2.1, 02C, 52.or.)

2. Aurrena, irakasleak irakurriko du, ahots altuan, eta, ondoren, zuen txanda izango da.

### 8.3. C1 MAILA

Helburua: testua isilean irakurri, ulertu eta guztion artean komentatu ondoren, ahots altuan irakurtzea, intonazioa egoki baliatuta.

Prozedura:

1. Testua isilean irakurri eta ulertu, nork berea. Ondoren, ahoz, honako bi galderon inguruan jardungo dugu:
  - a. Gustatu zaizue?
  - b. Zeri buruz dihardu Anjel Lertxundik? Zer mezu helarazi nahi dio irakurleari?



Berria, 2011-02-17

#### HITZ BESTE

## Prestatzen

#### ANJEL LERTXUNDI

Autobusean, nire adineko ezagun batzuk, apunteak erreparatzen. Erretiratuak dira, unibertsitatera doaz. Hainbat urtez fabriketan-eta lanean jardun eta gero, aisiarako ia denborarik gabe, ikasten ari dira *tranche de vie* berrian. Gehienek humanidades deitzen genuen munduko diziplinak hautatu dituzte. Artea batek, historia besteak, antropologia hirugarrenak...

Umetako poz ia ahaztua eskuratu balute bezalako ilusioz, ikasle gazteekin nahasita jaitsi dira autobusetik. Burutik pasatzen zait gazteek lana izateko ikasi nahi dutela, gehienek horregatik hautatzen dituztela karrera praktikoagoak. Erretiratuak, aldiz, lanak anputatu eta lapurtu ziena eskuratzeko, horregatik hautatzen dituztela karrera humanistagoak.

Biak ari dira bizitzarako prestatzen. Biak perspektiba desberdinarekin, ordea. Bururatzen zait bizitzari kaixo! esaten ari direla batzuk. Besteak, aldiz, aio! ahalik duinena esateko prestatzen...

2. Orain, ahots altuan irakurriko dugu. Lehenengo, irakasleak egingo du, eta, ondoren, zuen txanda izango da. Etenei eta intonazioari erreparatuko diegu, bereziki: goranzko intonazioa, beheranzko intonazioa, tartekia... Etenak non egin behar diren eta, kasu bakoitzean, intonazioa nolakoa den errazago ohar zaitezten, testuan bertan markatu ditugu:
  - Goranzko intonazioa eta etena %H /
  - Beheranzko intonazioa eta etena %L /
  - Tartekiak (tonu baxuagoa), gainerako testutik bereizteko.
  - Agurrak (tonu altuagoan), gainerako testutik nabarmentzeko.

Ondo irakurtzea ez da erraza, eta, batzuetan, aukera bat baino gehiago ere egon daiteke. Esaterako, testuaren amaiera aldera, badago kostata irakurtzen den zati bat. Koma artean sartu, eta, tarteki bihurtuz gero, errazago irakurriko genuke. Eta guk horixe egin dugu. Dena dela, bietara irakurriko dugu, aldea ikus dezazuen:

- *Bururatzen zait bizitzari kaixo! esaten ari direla batzuk %L /. Besteak %H /, aldiz, qio!, ahalik duinena, esateko prestatzen...*
- *Bururatzen zait bizitzari kaixo! esaten ari direla batzuk %L /. Besteak %H /, aldiz,/ qio! ahalik duinena esateko prestatzen...*

Oharra: puntuazio-markak ez ditugu ezabatu, ohar zaitezten batzuetan etena egin behar dela, komarrik egon ez arren.

### Prestatzen

Autobusean %H /, nire adineko ezagun batzuk %H /, apunteak errepassatzen %L /. Erretiratuak dira %L /, /unibertsitatera doaz %L /. Hainbat urtez fabriketan-eta lanean jardun eta gero %H /, aisiarako ia denborarik gabe %H /, ikasten ari dira *tranche de vie* berria %L /. Gehienek %H / humanidades deitzen genuen munduko diziplinak hautatu dituzte %L /. Artea batek %H /, historia besteak %H /, antropologia hirugarrenak %H /...

Umetako poz ia ahaztua eskuratu balute bezalako ilusioz %H /, ikasle gazteekin nahasita jaitsi dira autobusetik %L /. Burutik pasatzen zait %H / gazteek lana izateko ikasi nahi dutela %L /, gehienek %H / horregatik hautatzen dituztela karrera praktikoagoak %L /. Erretiratuek %H /, aldiz %L /, lanak anputatu eta lapurtu ziena eskuratzeko %L /, horregatik hautatzen dituztela karrera humanistagoak %L /.

Biak ari dira bizitzarako prestatzen %L /. Biak perspektiba desberdinarekin %L /, ordea %L /. Bururatzen zait %H / bizitzari kaixo! esaten ari direla batzuk %L /. Besteak %H /, aldiz %L /, qio!, ahalik duinena, esateko prestatzen...

## 8.4. C2 MAILA

Helburua: testua isilean irakurri, ulertu eta guztion artean komentatu ondoren, ahots altuan irakurtzea, intonazioa egoki baliatuta.

### Prozedura:

1. Testua isilean irakurri eta ulertu, nork berea. Ondoren, ahoz, honako galderon inguruan jardungo dugu:
  - a. Gustatu zaizue?
  - b. Zeri buruz dihardu Anjel Lertxundi? Zer mezu helarazi nahi dio irakurleari?
  - c. Erraz irakurri duzue? Ezerk oztopatu dizue irakurketa? Zerk?



Berria, 2015-05-28

## Beroarena kendu

### ANJEL LERTXUNDI

Hizkera bizitu, bizkortu, koloreztatu. Haren hautsak, goroldioak, herdoiak, orbela kendu. Hizkuntzara ekarri ditugun izurriteak —asperdura, abstrakzio alferrikakoak, anbiguotasunak, eufemismoak— herra osoz pertsekitu eta gure erantzukizunak zurruntasun osoz aztertu. Hizkuntzarekin paseatu, dantza egin, eta baita mendiak eskalatu ere, eskalatzailen pasioz, ordea. Hizkuntzaren plazera bilatu pasio erotikoz, berarekin oheratu eta zorte on!

Ederki, ez nadin pasa beroan. Baina mundua aldatu nahi omen dugu: hizkuntza aldatu gabe, nekez. Hizkera herdoildu batek errealitatea herdoiltzen du, hizkeraren grisak mundua grisagoa bihurtzen, eufemismoek gezurrez gainezkatzen, hizkera baldar bidegabe batek bidegabekeria barreiatzen.

Aurrerakoitzat dauzkagu gure buruak, baina erreparatu ondo han-hemen daralbigun hizkerari, aztertu ez ote den grisa, kademiko burokratiko, errutinaren obramendua, lapa-zorriak ere loarazteko modukoa...

2. Orain, ahots altuan irakurriko dugu. Lehenengo, irakasleak irakurriko du; jarraian, zuen txanda izango da. Etenei eta intonazioari erreparatuko diegu, bereziki: goranzko intonazioa, beheranzko intonazioa, tartekia... Etenak non egin behar diren eta, kasu bakoitzean, intonazioa nolakoa den errazago ohar zaituzten, testuan bertan markatu ditugu:
  - Goranzko intonazioa eta etena %H /
  - Beheranzko intonazioa eta etena %L /
  - Tartekiak (tonu baxuagoa), gainerako testutik bereizteko.

### Oharrak:

- Zerrendaz josita dago testua; alegia, komaz josita. Baina intonazioa ez da beti bera izango. Intonazio egokia erabili ezean, galdu egin gaitzke. Ez da batere erraza testu hau ondo irakurtzea.
- Puntuazio-markak ez ditugu ezabatu, ohar zaituzten batzuetan etena egin behar dela, komarik egon ez arren.

### Beroarena kendu

Hizkera %H / bizitu %L /, bizkortu %L /, koloreztatu %L /. Haren hautsak %H /, goroldioak %H /, herdoilak %H /, orbela %H / kendu %L /. Hizkuntzara ekarri ditugun izurriteak %L / — ~~asperradura, abstrakzio, alferrikakoak, anbiguitasunak, eufemismoak~~ — %L / herra osoz pertsekitu %L / eta gure erantzukizunak %H / zurruntasun osoz aztertu %L /. Hizkuntzarekin %H / paseatu %L /, dantza egin %L /, eta baita mendiak eskalatu ere %L /, eskalatzaileen pasioz %L /, ordea %L /. Hizkuntzaren plazera bilatu pasio erotikoz %H /, berarekin oheratu %H / eta zorte on %L /!

Ederki %L /, ez nadin pasa beroan %L /. Baina mundua aldatu nahi omen dugu %L /: hizkuntza aldatu gabe %H /, nekez %L /. Hizkera herdoildu batek %H / errealitatea herdoiltzen du %L /, hizkeraren grisak %H / mundua grisagoa bihurtzen %L /, eufemismoek %H / gezurrez gainezkatzen %L /, hizkera baldar bidegabe batek %H / bidegabekeria barreiatzen %L /.

Aurrerakoitzat dauzkagu gure buruak %L /, baina erreparatu ondo hantemen daralbigun hizkerari %L /, aztertu %H / ez ote den grisa %L /, kademiko burokratiko %L /, errutinaren obramendua %L /, lapa-zorriak ere loarazteko modukoa...



**Bibliografia**

- Alcántara Trapero, M. D. (2009). La importancia de la lectura en voz alta. *Innovación y experiencias educativas*, 16. Hemendik berreskuratua: [http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_16/DOLORES\\_ALCANTARA\\_2.pdf](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_16/DOLORES_ALCANTARA_2.pdf)
- Arrula, G. (2014, ekainaren 12a). Belarriak irakurtzen duenean. *Berria*. Hemendik berreskuratua: [http://www.berria.eus/paperekoa/1905/031/001/2014-06-12/belarriak\\_irakurtzen\\_duenean.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1905/031/001/2014-06-12/belarriak_irakurtzen_duenean.htm)
- Baeza, P., Razmilic, T. (2006). *Lectura en voz alta. Curso de Didáctica de la Enseñanza de la Lectura, Escritura y Matemática*.
- Battro, A.M. (2011, ekainaren 23a) Leer en voz alta, mejor para el cerebro. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://lecturaenvozalta.blogspot.com.es/2011/06/leer-en-voz-alta-mejor-para-el-cerebro.html>
- Bermejo, I. (d.g.) *Lapicero mágico. Animación y la Lectura y Escritura Creativa*. Hemendik berreskuratua: <http://lapiceromagico.blogspot.com/es/>
- Durán, D. (koord.). (2011): *Bikoteka irakurtzen*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik berreskuratua: [http://grupsderecerca.uab.cat/grai/sites/grupsderecerca.uab.cat/grai/files/Bikoteka\\_irakurtzen-eusk-1.pdf](http://grupsderecerca.uab.cat/grai/sites/grupsderecerca.uab.cat/grai/files/Bikoteka_irakurtzen-eusk-1.pdf)
- Eizagirre, E. (2012, abenduaren 30a). Testuak interpretatzen ikasteko gakoak. *Argia*. Hemendik berreskuratua: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2351/irakurketa-ulerkorra>
- Etxebarria, A., Gaminde, I., Garay, U., Romero, A. (2012). Tonuak gazteen testu irakurrietan. *Fontes Linguae Vasconum*, 114, 73- 91. Hemendik berreskuratua: <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/7A0C7F09-3D13-4661-9D9E-6221883A85C2/232564/EtxebarriaFLV114WEB.pdf>
- Gaminde, I., Aurrekoetxea, G., Etxebarria, A., Garay, U. eta Romero, A. (2014): *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Juaristi, P. (2002). *Euskarazko irakurketa-idazketa prozesuaren zailtasunen trataera*, [Ikerketa proiektua].
- Moreno, V. (2000). *Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea*. Pamplona: Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- Moreno, V. (2005). *Zertarako irakurri? Ulertzeko*. Iruña: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.
- Oñederra, M.L. (2004). *Fonetika fonologia: hitzez hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua.
- Peña Garay, M. (2005). Habilidades lingüísticas de los niños menores de un año. *Revista de neurología*, 41, 291-298.
- Rodríguez Rivero, M. (2013, Azaroaren 5a). En voz alta y para todos. *El País*. Hemendik berreskuratua: [http://cultura.elpais.com/cultura/2013/11/05/actualidad/1383656370\\_370325.html](http://cultura.elpais.com/cultura/2013/11/05/actualidad/1383656370_370325.html)